

Gazte Erronka dinamikak edizio berria ospatuko du ostegunean, 12-14 urteko gazteak euskarara kirolaren bitartez gertura daitezen

- **Kirola, jokoak eta adimen probak uztartzen dituen Gymkana modukoa da *Gazte Erronka***
- **Leizaran institutuko, La Salle-Berrozpe ikastetxeko eta Aita Larramendi Ikastolako 1. eta 2. DBHko 300 gazte baino gehiago bilduko dira jarduerara**

Andoainen, 24-09-23.- Andoaingo Udaleko Euskara eta Gazteria lansailek herriko Gazte Lokala eta ikastetxeekin batera *Gazte Erronka* ekimena antolatu dugu, bigarren urtez, datorren irailaren 26rako. Xede nagusia du 12-14 urte bitarteko gaztetxoek euskara arlo ludikoarekin identifikatzea, kirolarekin, jokoekin... Gure herrian umeez eta gaztetxoek D ereduari ikasten dute, hau da, euskaraz egiten dute ikasketa ibilbide osoa, baina gelatik kanpo horietako asko ez dira gai eguneroko harremanetan euskaraz aritzeko. Gaitasun hori lortzeko guztiz funtsezkoa da aisialdian eta egoera ez formaletan ere euskararen erabileran trebatzea.

Irailaren 26an Goikoplazan (euriarekin Aita Larramendi Ikastolako frontoian), goizeko 10etatik 12etara antolatu den *Gazte Erronka* ekimenean euskararen erabilera sustatzeaz gain, beste helburu hauek ere lortu nahi genituzke:

- Gazteen arteko lankidetzaren sustatzea lehiakortasunaren ginetik
- Ikastetxeen arteko harremanak sendotzea
- Agente desberdinen arteko kolaborazioa sustatzea eremu komunitarioan: Udala, ikastetxeak, Gaztelekua, ... helburu jakinen aurrean.

Kirola, jokoak eta adimen probak uztartzen dituen Gymkana modukoa da *Gazte Erronka*, Leizaran institutu, La Salle-Berrozpe ikastetxe eta Aita Larramendi Ikastolako 1. eta 2. DBHko ikasleentzat, 300 gazte baino gehiago bilduko dituen jarduerara. Platape Kirol Klubak eskainiko du saioa eta antolatuko diren taldeetan hiru ikastetxeetako ikasleak egongo dira nahastuta. Eguraldi txarra egingo balu ekimena Aita Larramendi Ikastolako frontoian burutuko litzateke.

Euskararen protagonismoa indartzeko Jokin Goikoetxea arituko da esatari moduan, frogak komentatzen, parte-hartzaileak xaxatzen... Jokin Realaren eta Osasunaren Espainiako Ligako partidetan euskaraz aritzen da esatari ordainpeko DAZN streaming plataforman.